


EuskaraZ



Bizi

4

DONOSTIA ETA INGURUA



Eskuetan duzun liburu xalo honek Donostiara, bere eskualdera, bere problematikara, bere bizitzara,... hurbiltzeko bidean zuri laguntzea du helburu.

“Donostia eta ingurua” deitzen da eta, Euskara Batzordea bitarteko, Donostiako Udalak babesturik argitaratu ehorri da. Gordailu argitaletxea izan da egile eta arduradun. Geure eskerrona berari.

Ez haur, ez adineko, gazte eta gaztetxoak baizik zaituzte gogoan. Zuengana iritsi nahi luke batipat. Hiria, ingurua, historia, ondarea eta, ondare horren barne, euskara, balio preziatutzat eskaintzen dizkitzue, zuek zeurren aldetik eta zeurren ekintzaz guztia ezagutu, hobetu, eraldatu edo moldaberritu dezazuen. Zuen partaidetza, esan gabe doa, ezinbestekoa duela gure hiriak eta bere inguruak, gure historiak, euskarak, Euskal Herriak.

Beharrezko dugu bizitzaren kalitatea jasotzea, gure bazter eta xokoguneak txukun mantentzea, geure historia lantzea, euskara komunikazioarako nonahi eta beti erabiltzea. Eta ororen buru, etorkizunari begiak erone, burua zut begiratzea.

Gustora geldituko ginatekeela esatea gelditzen zait, liburu honek bide horretan barna zertxobait saka baleza.

Donostiako Udala, 1985ko Iraila

Txus Kongil, Euskararen Ordezkarria.

TESTUGILEAK:

Izaskun Amotxategi, Iñaki Gonzalez eta Jazinto F. Setien.

ARGAZKIAK:


Karlos Korbella.

ARGITALPENA:

Gordailu - Donostia - Bergara, 21-3 ezk. Tfnoa. 429779

NOLA IRITSI DONOSTIARA

Dena dela baina, Donostian bizi ez bazara, gaur egungo ibilgailuren bat hartu beharko duzu bertara joateko. Hala nola:



Zorroaga aldetik Donostiarako sarrera.

a) **Trena:**

Fronterako tranbia.- Hendaia, Irun eta Errenterian barnar datorrena. "Topo" izenez ezagutzen da eta Amara Zaharrean dauka geltokia.

Eusko trenak.- Bilbotik kostaldean zehar Zarautz eta Oriotik barna heltzen da. Honek ere leku berean du geltokia.

Trenbide zabala.- Irun-Madrid donostia eta Goiherri eta Tolosaldeetik etortzeko ibilgailu egokia. Aski ezaguna da Iparreko (Norteko) geltokia edo baita RENFE-ko geltokia.

b) **Autobusa.-** Pio XII Plazan geltokia dutenez, autobus multzo handia aurkituko duzu bertan. Hona berezienak: Donostia-Bilbo; Donostia-Lizarra/Longoño; Donostia-Iruñea; Donostia-Baiona.

c) **Autoa.-** Autopista eta Tolosako autobidea dira Donostiarako autoentzat sarbiderik nagusienak. Aldi berean inguru herrietako errepideak (Hernani-Aiete; Hernani-Astigarraga; Errenteria-Donostia, etab.) garrantzi handikoak dira.

URUMEA IBAIA


Donostiara trenbidez bazatuz eta Renfe-ko geltokian trenetik jaitsi, ibaia zeharkatu behar duzu, Urumea ibaia, Maria Kristina zubiaren gainera.

Urumea ibaia Ezkurrako (Nafarroa) mendietan sortzen da, eta Goizueta, Hernani, Astigarraga eta Loiolan barna bide eginez Donostiako Zurrilari itsasoratzen. Orain baino zikinago ere egon izan da. Izan ere, ohar, beronen harroan, Hernani batipat, industri gune handia dela eta industriak beti ere zikindu nahiz kutsatu egiten duela ibaietako ura.


Garai batetan ibai honek ez zuen orain baino garrantzi gutxiago. Zergatik ote? Itsas-lapurren beldurrez edo, portuak ez bait ziren kostaldean, kasu askotan behintzat, eta Urumearen kasuan ere ez. Portua Hernaniko herrian zegoen, gaur egun oraino Portu auzoa deitzen den lekuan.

Geroago ere, XVIII. mendearen azkenera arte, garraiobide egokia izan da Urumea ibaia, honen ertzetan kokaturik zeuden burdinoletara bai meatza (ekarri) eta bai burdinezko tresnak (eraman) ibaibidez egiten bait zen. Famatuak ziren Hernaniko aingurak, esaterako.

Eskualde honen barne Oiarzun ibaia (Pasaian itsasoratzen da) eta Oria ibaia (Orion) aski ezagunak dira. Lehena, Oiarzun, erromatarren garaitik ezagutzen dugu. Oearso izenez deitzen zuten hauek. Eta bestea, Oria, Gipuzkoako luzeena dena, zikinen ere bada Goiherri, Tolosalde eta Lasarteko industria dela medio.



RENFE-ko geltokia.



Maria Kristina zubi berritua Urumea ibaiaren gainera.

DONOSTIA TONBOLO BATEN GAINEAN

Loiola Auzotik behera bokale arte-raino (Zurriola) horma sendo eta fin-koz kanalizaturik dugu Urumea ibaia. Gainera, Donostiaren parean hiruzubi eder aurkitzen dira zein baino zein ederragoak: Maria Kristina, Santa Katalina eta Kursaalako zubia.

Baina oraintsuko gauzak dira hauek. Oroit lehengo mendearen azkenaldera egin zirela obra guztiok.

Ibaiak, beti ere, uholde garaian batipat, zakar eta hondakin asko ekartzen du bokalera. Urumea ibaia ekarri dituen hondakinak direla medio Gaztelu (Urgull) mendiaren oinetan, aintzina Santa Klara bezalaxe uharte zenaren oinetan, tonboloa deitzen den oinarria osatu zen eta horren gainean finkaturik dago Donostiaren hirigune zaharra batipat.

Horretaz aparte, Antiguoko Auzoa ere nahiko aintzinakoa da. Izena ikusi besterik ez dago.


Gainerakoan, Donostiak gaur egun bere azpian hartzen dituen lurretan, bide bat edo beste (Aldapetakoa, Antigu aldekoa, Astigarragakoa) eta baserri batzuek baizik ez zen.



Aintzinako Donostiako hirigune zaharra.



Donostia hiri modernoa.



Donostia eta bere inguruko planas (herri, ibai, mendi eta komunikabide nagusiak).

Igeldora autobusez edo-eta, nahi baduzu, tren bitxi eta zuti batetan (funikularréz) joan daiteke. Igeldon badituzu joko interesgarriak. Zoaz han dagoen balkoi handi baten gisako plaza hartara eta ikus zein panorama ederra den begien aurrean duzuna: Donostiako badia, Kontxa eta Hondarreta, bi hondartza zoragarri hauekin batera.

Badiaren erdian uharte koxkor bat duzu: Santa Klara uhartea, bi albotan, zaintzaile modura, Gaztelu Mendi (Urgull) eta Igeldo Mendi dituelarik.

Donostia inguruko paisaia zabalago bat ikusi nahi izanez gero, har ezazu aurrean duzun prismatiko (turuta gisako) tresna luze hori eta beha ezkerretik eskuinera: Ulia, honen atzean Jaizkibel eta harago Aiako Harria. Erdialdera enfokatuz, Urdaburu, San Markos eta Txoritokieta, Oriamendi eta Agerre (Adarra). Eta eskuinetik, Andatza (beraren gibelean, urrunago, Hernio), eta kostaldera, Mendizorroitz.

Azkenik, eta eguraldi garbia bada behintzat, eman begirada bat gure kostaldeari: Hasi Matxitxako lurmuturretik, Getariako San Anton eta Pasaiako sarre-ara bitartea, Miarritze edo Baionako barraino.

Ahal baduzu, gainera, ez joan eguzkia itsaspean nola gordetzen den ikusi gabe. Bai ikuskari zoragarri eta xarmanta.

Donostiako hiriaren erdigunea ikusten baduzu, berehala ohartuko zara bi zati desberdinek osatzen dutela. Bata, Alderdi Zaharra esaten dena eta Donosti Berria bestea.

Bi zation arteko muga "Boulevard" deitu zumardia da. Aintzina, nola Alderdi Zaharrak baizki ez zuen existitzen (horixe zen Donostia) harresiz inguratua zegoen. Harresi hauek 1863an erauzi edo bota zituzten eta orduan, plangintza baten barne, eraiki zen Donosti Berria. Plangintza hau Kortazar arkitekto famatuari zor diogu.


Gainera, ez duzu buruhausten ibili beharrik Donostiako hiria alde batetik itsasoa (Kontxa) eta bestetik ibaiari (Urumea) lurra kenduz lurralde horren gainean egina dagoela ikusteko.

Hona adibidez noiz eraikiak diren ondoko edifizio hauek:


- Bretxako Merkataua (1870).
- Santa Katalina harrizko zubia (1872).
- Kasino Handia, egun Udaletxe dena (1887).
- San Martin Merkataua (1890).
- Miramar Errege-Jauregia eta Antiguoko Tunela (1893).
- Artzain Onaren Eliz Nagusia (1897).

Beronekin batera aipatu behar da, baita, Gros Auza ere, ibaiez bestaldetik eta 1897 urtean eraikitzen hasi zena.

Horrelaxe joan zen Donostia kalez eta etxez jazten, eta horretarako, ez zuen gutxi bultzta eta lagundu Donostia Gipuzkoako hiriburu izendatu izateak (1854).



Gizonaren eskuak lan asko egin behar du itsasoari eusteko (Urumearen bokalea, Zurriola).



Donostiako auzoen artean, bere aintzinasunagatik, Antiguoa Auzoari zor zaio aipamen berezia.

Gaineratikoak, oso berriak eta ia oraintsuak dira, industriaren garapenerekin batera, 1.950 urtez geroztik eraiki eta hornituak. Esaterako:

- Amara Zaharra.
- Amara Berri.
- Egia Auzoa.
- Ibaeta-Añorga.
- Bidebieta-Herrera.
- Altza-Larratxo.
- Loiola-Martutene.
- Intxaurreondo.
- Gros,...

Normalki auzoetan langile jendea eta kanpotik etorri den jendea bizi da. Eta etxeak ere auzo hauetan nahiko handiak eta pilaturik daude. Zerbitzurik handiena lokeri izatea dute auzo hauek.

Hala eta guztik ere, autobusak direla medio, ongi komunikaturik daude guztiak Donostiako hirigunearekin.


Hiri batek, zenbat eta handiago den, are eta eragin handiagoa zabaltzen du, ez bakarrik auzoetara, baita inguruko herrietara ere. Berdin gertatzen da Donostiaren kasuan. Eta gainera herrietatik begiratzen bada, erraz ulertzen da zer gatik hori gertatzen den, zeren eta arazo nagusiren bat konpontzeko (erosketak, ikasketak, medikua,...) hirira joan behar izaten dugu, zerbitzurik onenak ere hantxe daude-eta. Hona nola, besterik gabe, Donostia eskualdeko hiriburu gertatzen den.

Bestalde, Donostiak, paraje bitxi batetan kokatzen denez, erakarpen handia du edonorentzat eta, lehenago mendearen erdiz gero batipat, kanpotar asko biltzen du uda sasoiari. Horregatik, aspaldi danik esaten da Donostia udatarren egoitza dela.

Bitxitasun hau gorde nahirik, Donostia salbu elikaduraren arloan (esnea, garagardoa, txokolatea,...) ez da batere industrigune garrantzitsua, baina bai bere eskualdea. Hala nola:

- Pasaia / Lezo / Errenteria.
- Urnieta / Hernani / Astigarraga.
- Usurbil / Lasarte / Añorga.

Hori dela eta, herri hauek, denbora gutxian aldakuntza handia jasan dute, lehenago itxura guztiz aldatu dutelarik.



Ez du jende gutxi erakartzeko Donostiak uda sasoiari.

Pasaiaiko portua, gure industria gorakadan joan den heinean, joan da garrantzia hartzen. Eta halaxe da izan ere, industriak lehengaiak eskatzen bait ditu. Esaterako, burdingintzarako txatarra behar da ekarri. Horregatik, bai lehengaiak ekartzeko eta bai produktua landuak eramateko irtenbide egokia da Donostiatik hurbil Pasaiaiko portua.

Hona zenbait xehetasun berari dagokionez:


- Neurriak: 1.200 m. luzera; 80-120 m. zabalera eta 10 m. gutxi-asko sakonera.

Beraz, aski untxi handiak sar daitezke bertan eta ikusi besterik ez dago zer nolako merkatal trafikoa mugitzen den hor. Adibidez, 1.977 urtean 4.357.603 Tona garraiatu ziren; petrolio, txatarra, ikatza, autoak, etab.

Bestalde, esan beharrik ez dago baduela portu honetako merkatal trafikoa eraginak utziz gintza industrian ikustekorik asko.

Horretaz gain, Pasaia arrantza portu bezala ere ikustekoa da. Arrantzale asko bizi da Trintxerpe, San Pedro eta Donibanen. Alturako arrantza esaten denak du garrantzia hemen, eta bakailoaren arrantza motak bereziki.

Bajurako arrantzaren mailan aipagarri dira eskualde honetan Donostiako portua alde batetik eta Oriokoa bestetik.



Pasaiaiko portuaren ikuspegi bat.



Donostiako portu zahar eta bitxia.


Industria eta turismoa dira Donostiari beste herrien gainetik nagusitasuna eman dioten arrazoiak. Oroit, adibidez, garai batetan Tolosa bera handiago zela, eta are, Gipuzkoako hiriburu ("hiriburu forala") izana dela.

Nolanahi ere, badakigu, XIX, mendearen azkenaldiz gero, Donostia poliki poliki hiri moderno baten aire eta itxurak hartzen joan dela. Hiri moderno batek beharrak eta premiak ere berekin ditu: ura, argia, gasa, garraioak, garbitasuna, suhiltzaileak, etab.

Adibidez, zentzu honetan, aipagarri dira:

- Uraren harrera: Artikutza (1899).
- Gasaren lehen fabrika (1861).
- Argindarra, (1899).
- Lehen tranbia, zaldiz erabilia (1887).

Guzti honekin batera orduan hasten da hiri bati dagokion gisa eskualdeari bere zerbitzuak eskaintzen ere. Hala nola denda, banketxe eta gainerako administrazio zerbitzuak.



Kasino handia izan zen edifizio gaur egun Udaletxea bilakatu da.


DENDAK ETA MERKATUAK

Dena den, gaur egun gauzak asko aldatu dira. Donostiak hazkunde handia izan du azken urteotan, baina baita inguruko eta, oro har, Gipuzkoako herriek ere.

Bestalde, jendea lehen baino askoz gehiago ibili ohi da eta maizago Donostiara itzuli bat egitera etortzen da. Horretarako komunikabideak ere erasoa goak dira garai batekoekin koparatuz gero.

Erosketak egitea helburu nagusia da Donostiara datorren jende askorentzat. Hala, edonork daki, tabernarik goxoena Alderdi Zaharrean bezala, dendarik hoberenak eta hautatuena Donostia Berrian kokatzen direla. Hemen ikus daiteke hainbat denda: zapategi, jantzidenda, bitxitegi, lurindegi, ileapaindegi, haltzari-denda, etab.

Horretaz gain, eguneroko arraultze, arrain, barazki edo fruituak erosteko aukerako lekuak ditugu San Martin eta Bretxako Merkatuak.




Bretxako merkatu irekia.

BULEGOEN ZERBITZUA

Donostian dendak ez ezik, beste zenbait etxe nagusi ere aurkituko duzu: Foru Diputazioa, Auzitegia, Gobernuaren ordezkari-tza ofizialak (Lana, Hazienda, Irakaskuntza, Turismoa,...) beren bulego eta zerbitzu multzo batekin. Zerbitzu hauek, bistan da, hiriko eta auzo herrietako eta Gipuzkoa osoko jendea biltzen dute.

Maila honetan, banketxeak dira egiteko nagusi bat kumplitzen dutenak. Aipagarri dira Donostian sortu eta Donostiatik beste herrietara hedatu direlako bai Aurrezki Kutxa Probitziala, bai eta Munizipala.

Bulego gehiagorik ere izaten da hirietan eta Donostian zer esanik ez. Esaterako, abokatu, mediku (dentalista, okulista,...) notari, arkitekto, Seguru Etxe, etab.



Foru Diputazioa Jauregia.

OSASUN ZERBITZUAK

Donostiako hirirean barne leku berezi batetan Zorroagako gainean hain zuzen, kokatzen da "Osasun Hiria" esaten dena probintzia osoaren zerbitzutan.

Bertan ikus daitezke: Erresistentzia (Amategia eta Psikiatrikoa bi osagarrikin); Ospitalea, eta Sendategia.

Bestalde, Geriatrikoa eta Gurutze Gorria (Antiguo aldean) eta Onkologikoa (Aldakonean) nahiko zentru garrantzitsuak dira.


Behar dira aipatu, baita, beste zenbait klinika pribatu edo erdi pribatuak: Psiklinika, San Joan de Dios, San Inazio,...

GOI MAILAKO ESKOLAK


Lehen mailako ikasketak herrian bertan eta bigarren mailakoak norbere herri asko urrundu gabe egin daitezke. Baina beste gauza da goi mailakoak egin nahi direnean. Horregatik Donostiara astelehen goizetan gazte multzo bat etorri ohi da eta, alderantziz ostiraletan etxeratu.

Eta... zein aukera daude gaur egun Donostian goi mailako ikasketak egin ahal izateko?

- Abokatu (Ibaeta)
- Inginari (Urdaneta kalea)
- Informatika (Ibaeta)
- Petrokimika (Altza)
- Filosofia, Psikologia, Pedagogia (Zorroaga)
- Historia, Filologia, Zientzia Enpresarialak,... (EUTG)
- Irakasle (Ategorrieta eta Seminarioa)
- Itzultzaile (Martutene)
- Peritza (Amara)
- Asistentzia Soziala (Aldapeta)
- Sukaldaritza (Satrustegi Dorrea)
- Antzerki Eskola,...
- Musika Eskola,...



"Osasun Hiria" Zorroaga gainean.



Informatika eta Zuzenbide fakultateak (Ibaeta zuzoa).


KIROL HIRIA

Donostiako plangintzaren barne "Kirol Hiria" Anoetan kokatzen da eta honako edifizio hauek osatzen dute: Belodromoa, Polikiroldegia, Balda Pilotalekua, Anoeta Trinketea eta Izotz Jauregia. Bistan da, Anoetak zerbitzu ederra egiten duela, baina nahiko errealitate koxkorra dela ere esan behar.

Donostia inguruko kirolari buruzko zaletasuna ikusirik, ondoko kirol mota bi hauek azpimarratu behar dira:

- **Pilota:** Anoeta, Balda eta Galarretan zentratzen da.
- **Futbola:** Atotxako futbol zelaian, "Real Sociedad" ekipoaren inguru, lekutzen da, eta arlo honetan, baita, aipagarri da hondartzako futbola.

Zentzu zabalago batetan, badira urtean zehar beste ekitaldi aski famatuak direnak. Hala nola, estropadak, Euskadiko Sei Orduak, Herri Maratoia, Behobia/Donostia lasterketa, eta Lasarteko krosa nahiz Zaldi Lasterketa.




Anoetan kokatzen dira bereziki kirol instalazioak.

DONOSTIAKO BESTA GIROA


Donostian benetako besta giroa aurkitu nahi duenak neguko ospakizunak ditu horretarako egokiak. Aipa ditzagun bat banaka zeintzuk diren:

- **San Tomas Eguna:** herri giro handia duen jaia. "Santo Tomasko feria, txorixoa eta ogia".
- **Donostiako Eguna:** Urtarrilaren 20an ospatzen da. Gau eta egun atergabe besta giroa ospatzen du Donostiak egun horretan. Danborrada izaten da (heldu, gazte eta haur, gizona eta emakumezko) ikuskaririk hobetena.
- **Pazigile edo kaldereroen besta:** Honek ematen die ihauteriak jaialdiari hasiera. Nahiko besta bitxia da, eta ez doa atzerakadan inola ere. Ez bakarrik hirigunean, auzoetan berdin, Gros auzoan adibidez.
- **Ihauteriak:** Jaialdi ederra benetan ihauterietakoa udaberrian. Bijoi- eta aski nabariak ikusten dira ihauterien antolaketan: bata, bertakoa eta gure giroa suzperitu nahia, eta nahiko arrotza edo handizua bestea.



Pazigileak dira Donostian ihauterien iragarle jatorrak.

UDAKO OSPAKIZUNAK



Herrietako jaiekin (adibidez, San Joanak edo Madalenak) Donostian uda garaian burutzen diren jai eta ospakizunak konparatuz gero, "kanpo eder" direla esan beharrik ez dago. Izan ere udatierrei begira antolatuturik bait daude. Auzoetako jaiek, ordea, hobekiago mantentzen dute Donostian bertan beren jatortasun eta herri giroa.

Nolanahi ere, **Aste Nagusia** deitzen dena da, izenak dioen bezala, ospakizunik garrantzitsuena Donostian. Abuztuko Andre Mariaren inguruko astea izaten da. Besteak beste, su artifizilak nahiko arrakasta biltzen dute.

Jazz Jaialdiko Txartela.

patzen dira eta Zinemaldia deitu jaialdia ere bai.

Musikaren arloan, Jazz Jaialdia da aipatu beharrekoa, eta horrekin batera Musika Hamabostaldia.

ERAKUSTEGIAK

Arlo honetan ez dago gauza handirik Donostian, egia esan. Euskal artista zenbaiten ahaleginak, batasun bat sortzeko eta gure artegitza suzatzeko, nola etorri hala joan egin zuen. Hala ere, pintura eta eskulturaren arloan, zenbait erakusketa antolatu ohi da, esaterako, Aurrezki Kutxen babespean edo areto pribatutan. Ondoko erakustegi hauek aipa daitezke:

- San Telmo Museoa (Alderdi Zaharra).
- Museo Ozenografikoa (Aquarium).
- Okendo Etxea (Gros auzoan).
- Museo Militar Historikoa (Gaztelua).

PASEALEKU ETA PARKEAK


Hiri moderno batek eskatzen dituen leku egokiak, jolaserako eta atsedenerako, ez ditugu gehiegi Donostian aurkitzen, eta hauetarik batzuk ez daude batere zaiinduak (Ulia esaterako).

Dena den, pasealekurik politenak;

- Edo itsas basterrean (Zurriola, Pasealeku Berria, Alderdi Eder eta Hondarreta Haize-Orraze monumentura arte).
- Edo ibai bazterrean (Foru Pasealekua, Bizkaia, Frantzia,...).

Eta parke aipagarrienak:

- Kristina-Enea (Gladys-enea).
- Miramar jauregia.
- Aieteko jauregia.
- Igeldo, Gaztelu eta Ulia.



Alderdi Eder pasealekua Kontxa hondartzaren gainean.

Maiz askotan kanpoko ogia gozagoa gertatzen da etxekoa baino. Hala ere, bada garaia etxeko gauzak estimatzen hasteko, eta beraz, gure pertsonaiak ezagutzera emateko.

Pertsonaien zerrendan lau multzo bereziko ditugu:

- **Musikagileak:** Usandizaga, Aita Donostia eta Sarriegi, donostiarrak; Olaizola, hernaniarra.

- **Idazleak:** Artola, Soroa eta T. Altzaga donostiar antzesgileak; P. Muxika, urnietarra; Manterola, J. Muxika eta Baroja, donostiarrak; Kardaberaz eta Iturriaga, hernaniarrak.

- **Bertsolariak:** Xepelar, errenteriarra; Bilintx, donostiarra; Alkain aita/semeak, urnietarrak; Txirrita, hernaniarra; Etxabe, oriotarra; Udarregi, usurbildarra.

- **Gerlariak:** Joan Urbieta, hernaniarra, Okendo eta Katalina Erauso, donostiarrak.




"Txanxillo" herritar pertsonaiaren argazkia.

Herri batek bere alaitasuna eta umorea, eta irria, kantu bidez azaltzen du hobe. Donostia, herri bat baizik ez zen garaian, eta halaxe zen ia oraintsu arte, aski umore oneko bizilekua zen. Orduan izena ere umoretsua zuten donostiarrak: koskeroak edo joxemariarrak deitzen bait ziren.

Kantu zahar multzo bat ezagutzen dugu umore onaren lekuko direnak. Bai na ez ditugu bakar batzuk baizik aipatuko hemen:


- 1) Festara, festara, festara
festarik behar bada
bego Donostia, bai, bai,...
- 2) Donostiako hiru damatxo
Errenderian dendarri,...
- 3) Zezena datorrela arkupetik
sua dariola adarretatik (Iriyarena),...
- 4) Pastelero, dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero,...
- 5) Biba ostegun gizen
biba ifauteria,...



Sarriegi, musikagile ospetsuaren irudia bere izeneko plazan.

ALDERDI ZAHARRA HISTORIAREN LEKUKO

Oso goxoa da Donostiako Alderdi Zaharra. Goxoa eta txeratsua: tabernak, dendak eta bertako xoko-moko guztiak ere berdin. Alderdi Zaharrea, ordea, harri zaharren historiak dauka merzimenturik handiena. Goazen ibilbide bat egitera hango bazterrak ikusmiratuz.




IBILBIDEA

1. San Bizente Eliza
2. San Telmoko Museoa
3. Abuztuak 31. kalea
4. Trinitate Enparantza
5. Gaztelu Mendia
6. Museo Ozeonografikoa
7. Santa Maria Basilika
8. Konstituzio Enparantza

SAN BIZENTE ELIZA

Lehenik **San Bizente Eliza** ikusiko dugu. Bera da, izan ere, Donostiako edifiziorik zaharrena: XVI. mendean eraikia da, baina gaskoinek XII. mendean eraiki tenplu zaharrenaren gainean finkaturik dago.



San Bizente eliza, Donostiako zaharrena.

Gaskoinak? Bai, gaskoinak, hemendik zehar ibili ziren (ikus Morlans, Urgull, Aiete,... leku izenak) eta merkatalgoaren aldetik bultzada handia eman zioten Donostiari. Gaskoinen bultzada hau, eta Antso Jakituna deitu nafar erregeren forua izan ziren, aintzina, Donostiari hiri izatea eman ziotenak.

San Bizente Eliza hiriarri begira dago; itsasaldetik begiratuz gero, gotorleku edo gaztelu itxurak ditu. Artearen ikuspegitik, **Gotiko estilokoa** da: erakuntzaren bertikalitatea, arku zorrotuak, eta... koxka asko dute kanpoko harri landuek. Hortik parroki horretako jendeari "koxkero" izena etorri zaio, Santa Maria parrokiakoei "joxemaritarrak" deitu izan zaien bezala.

Barnetik, aldre nagusiko erretaula, dugu aipagarriena, bertako eskulturak direla bide, edonork dakien bezala, erlijioa erakusteko medio egokiak gertatzen bait ziren.

San Bizenteren atzean aurkitzen da, dominikoen komentu izaniko edifikazio bikain hau eta XVI. mendekoa be-
ra ere.

Honek, lehenarekin konparatuz gero, horizontalitatea nabari du erai-
kuntzari dagokionez. **Errenazimendu estilokoa** da: arte klasikoa berpizten du estilo honek, simetria, pro-
portzioak eta oreka ongi zaintzen di-
tuelako.


Ikus beraren kalaustra eta kalaus-
traren sabaia gurutzeriaz hornitua. Eliza ere ikustekoa da eta bertan SERT margolariaren pinturak. Gaur egun antzerki, kontzertu eta erakuste-
gi bezala erabili ohi da.

Funtsean, lehen komentu zena, orain museo da, bi sailetan banaturik:

- a.- **Eder Lanak:** pintura eta eskultura. Euskal Artelan asko aurkituko duzu hemen.
- b.- **Euskal Etnografia:** aintzinako tresna, lanabes, ontzi, argizaiola,... zemahi gauza bada bertan.



San Telmo. komentu izan zeneko kalaustra euskal hilarri zaharrez horniturik.




Etnografiako sala bat.

Data interesgarri bat oroitarazten digu kale honek: 1813ko Abuztuak 31 eguna. Napoleonen gerla eta Donostia frantsesen menpe. Hiria harreresiz inguratu zegoenez, ongi defendaturik zen. Baina halako batetan eraso zieten portuges eta ingeles soldaduek eta zirizitu bat eginez (bretxa) hautsi ahal izan zuten harresia. Bretxako Merkatuari hortik dator kio bere izena.

Egun horretako arratsaldean su eman zioten ingelesek hiriari, eta ondorioz, bertako etxerik gehienak kiskali ziren, salbu kale honetakoak mendiaren babesean zeudelako.

Kale berean aurrera jarraikiz plazatzko bat dago, aski famatua dena eta bertan iturri bat. Hortxe izan zuen eta garai horretan Donostiako danborradak bere sorrera. Danborra joaz kalean zehar ibili ohi ziren soldadu aspergarriei irri egiteko hasi zen suilak kolpatzen uraren bila zetorren hiriko jendea.

Hortik eta hara sortu zuen gero Sarrigi musikagileak “danborradaren martxa” deitzen den muska.



Gaur egun, Donostiako danborrada ospe handia hartzen ari den herri jaita da.


TRINITATE PLAZA

San Telmo eta Abuztuak 31 kalearen tartean, Santa Korda karrika edo kale sastar batetik zehar aurrera jotzen badugu, izatez Donostiak duen txoko bitxi eta politenetariko batera iritsiko gara.

Trinitate Plaza dugu hau, bere pilotaleku, bolatoki eta idiapusturako leku bereziarekin. Eszenario egokia gertatzen da nola joko eta herri kiroltarako hala kontzertu eta antzerkiak emateko.

Plazaren sarrean, ezkerretik, adreilu gorritz eta zurez egokituriko etxe eder bat ikusiko dugu. Hauxe duzu Donostiako etxerik zaharrena.

Plaza honetan dauden eskailera batzuetatik Gaztelura (Urgull mendira) ongi igo gaitzeko.



Trinitate plazaren ikuspegi bat.

GAZTELU MENDIA

Donostiaren zaindari eta babesle den mendia. Tontorrera goazelarrik, bi-dearen erdi parean-edo **ingelesen hilerria** duzue, hiri zaharra hautsi eta kiskaliz defendatu gintuzten hatena, alegia. Gainean gotorleku bat duzu funtsean. Hiria defentsarako gazteluaren hondakinak daude bertan. Horregatik, Urgull ez-baina, Gaztelu du mendi honek bere lehen izena.

Ez frantses eta ingelesen garaian bakarrrik, aintzinago ere normandoak hemendik zehar ibili zirenean mendi hau babesgari ona izan zen donostiarentzat.

Lehen, gainera, behategi bat kokatzen zen gaztelu mendiaren gainean eta kanpai edo ezkila handi bat zegoen arriskuren bat gertatuz gero (etsaiak, sua, ekaitza, baleak itsasoan...) hiritar jendea abisatzeko.



Gaztelu edo Urgull mendia gotor leku izan da funtsean.

zegoen arriskuren bat gertatuz gero (etsaiak, sua, ekaitza, baleak itsasoan...) hiritar jendea abisatzeko.


MUSEO OZEANOGRAFIKOA

Gaztelu menditik portu aldera jaiten bagara, portuaren azkenean eta Pasealeku Berriaren hasieran lekutzen da Museo hau. Jeneralean, AQUARIUM izenez deitzen da.

Edifizioa itsaspeko haitz gainean finkaturik dago eta behehitan edo azpiko lokalean, arrain bizien erakustegia aurkitzen da, hainbat arrain mota diferente kristalezko kaiioletan kokaturik.

Horretaz aparte, museo hau ez da handia baino itsasoari buruzko gauza asko ikus daiteke bertan. Aski interesgarri diren gauzak, guztiak ere: gure marinel ospatsuen bidaiak, arrantzarako tresneria, arrantzaleen giroko jantzi, haltzari, etab.

Baina guztion gainera benetan interesgarri gertatuko zaizun zerbait dago galeria nagusian erdi erdian: "bizkaitensis" deitu euskal arrazako balea baten hezurdura.




Pasealeku Berria eta Kaiaren lotunean kokatzen den edifizio bildua.

SANTA MARIA BASILIKA

Goazen orain, gaztelu mendia iren oinetan kaiaren gainera zehar. Hortxe dugu Donostiako harrisi zaharren zati bakarra, pasa Portaleta eta berriro Alde Zaharrean gaude Santa Maria Basilikaren aurrean.

Donostiaren bi zaindariei (Koruko Ama eta San Sebastian) dedikaturik dago eliza. Saindu honen izenetik dator kio gure hiriri bere izen jatorria. Donostia.

Artearen aldetik, **barroko** estiloa da. Kale Nagusiak bere antzindari begiratuz gero, eszenario hunkigarri bat eskaintzen du benetan. Bertalde, marra bihurria izaten da barrokoaren ezagugarri nagusia, eta apaingarrien ugartasuna, eta eskulturak



Sa. Maria Basilikaren ataria Kale Nagusiaren gibelan.

ere oparo.

Barnetik areto eder bat da Santa Maria Eliza, bere hiru habearte eta gurutzetarako sabaiarekin. Aldare Nagusiaren erdian dago Koruko Ama Birjinaren irudia eta Sebastian Donearen koadroa. Italiar pintore baten obra da eta, gauza jakingarria, kaiako arrantzale bat hartu omen zuen hark eredutzat hura egitera koan.

Guztiz famatua da Santa Mariako organoa.

KONSTITUZIO ENPARANTZA

Donostia hiria 1813ko sutearen ondotik berreraiki zenean, egin zen obretariko garrantzikoena berau izan zen. Bertako edifizio nagusiena Udaletxe Zaharra dugu, egun Udal Biblioteka dena.

Donostiarrek guztiz maitea duten pasealeku eta biltokia da. Hemen ospatzen dira besta eta jaialdirik nagusienak ere: San Tomasko feria, Donostia eguna, pazigileak, etab. Garai batetan Zezen Lasterrak ere bai.

Artearen ikuspegitik, **neoklasikoa** da, eta zuzena, proportzioduna eta orekatua hein batetan. Oroit beraz, ikusi ditugun estilo desberdinak: gotikoa/bertikala, San Bizente; errenazimenduko klasikoa/ horizontala, San Telmo; barrokoa/bihurria, Santa Maria; eta Neoklasikoa, Konstituzio Enparantza.



Konstituzio enparantza Udaletxe zaharra erdian duelarik.

Hola nola amaitzen dugun Donostian zeharreko ibilaldia. Hortik aurrera baikoitzaren baitan gelditzen da bai Donostian bertan eta bai herrietan gauza gehiagorik bilatzea eta aurkitzea, eta arkituz behatzea eta gauza bakoitzaren ederraz gozatzea.